

Gizarte Hezkuntza LOMLOE legean eta Haurrak eta Nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteko Lege Organikoaren Proiektuan sartzeko eskatzen du

Gizarte Hezitzaileen Elkargoen Kontseilu Nagusiak Gizarte Hezkuntzaren ekintzaren beharra helarazi die politikariei

GHEKNk haurrekin eta nerabeekin lotutako lanbideak arautzeko beharra eskatu du

(2020ko abuztuaren 24a, astelehena) Gizarte Hezitzaileen Elkargoen Kontseilu Nagusiak, 2020ko uztail eta abuztuan zehar, **9 bilera** izan ditu hainbat diputaturekin: Giza Eskubideen eta Desgaitasunaren Politika Integraletarako Diputatuen Kongresuko Batzordekoekin, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Batzordekoekin eta Haur eta Nerabeen Eskubideen legegintzazkoa ez den Batzordekoekin.

Elkarrekin Podemos, Talde Sozialista, SIPSa, EH BILDU, Talde Popularra, Vox, Talde Errepublikarra, En Comú Podem, Ciudadanos, EAJ-PNV taldeek zuzenean jaso dute jadanik GHEKNren eskari nagusia: Gizarte Hezkuntza LOMLOE legean eta Haurrak eta Nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteko Lege Organikoaren Proiektuan sartzea.

GHEKNk oraindik aurkezteko ditu bere proposamenak Talde Anitzari (JuntsxCat, Más Compromís, País Equo eta BNG) eta Talde Mistoari (Cup, UPN, Teruel Existe, Foro Asturias, Partido Regionalista de Cantabria, Coalición Canaria eta Nueva Canarias).

Alde horretatik, GHEKNko presidentetzak honako hau jakinarazi du: talde politikoeekin eginiko bilera horietan *“arauen arloko aurrerapena aztertu dugu eta gaur egungo testuinguruaz hitz egin dugu; lanbidearen egoeraz, Gizarte Hezkuntzako Graduaz; eta gure esku-hartzea garatzeko laguntza, gizarte esku-hartzeko lanbideen erregulazioa eta, batez ere, haurrekin lan egiten dutenena, eskatu dugu”*.

Gizarte Hezkuntza, Eskolan beharrezkoa

Bestalde, **GHEKN-talde politikook** bileretan mahai gainean jarri zen Eskolak Gizarte Hezkuntzaren beharra duela. *“Zehatzago esanda, 33. artikuluari dagokionean; izan ere, bertan, Ongizate eta Babes Koordinatzaileari buruz hitz egiten da, bermatu egin behar baita haurren interes gorena eta haur eta nerabe guztien eskubideak”*. *“Berebizikoa da, GHEKNk dioenez, autonomi erkidego guztietan edukitzea”*.

Beste behar batzuei dagokienez, **famili erreferenterik gabeko adingabe atzerritarrak** ere kontuan hartu behar direla esan zien GHEKNk talde politikoei: *“beharrezkoa da egonaldiak babes zentroetan normalizatzea, eta ez premia abian jartzen diren bestelako baliabideetan, zeinetan ondoren bertan geratzen diren luzerako”*.

Bestalde, *“Legedian aurrerakuntza bat egin eta haur eta nerabeen babesa hobetzeko aurrekontu berezitua esleituko balitz, oso lorpen ona”* litzatekeela dio GHEKNk.

Gizarte-Hezkuntza Hezkuntza-Zientzietako gradu bakarra da, gaur gaurkoz, hezkuntza-sisteman sartzen ez dena

Gizarte Hezitzaileen Elkargoen Kontseilu Nagusiak, gainera, talde politikoei jakinarazi zien Gizarte Hezkuntza gradu bakarra dela Hezkuntza Zientzien fakultatean egon eta oraindik hezkuntza sisteman sartzen ez dena.

“Hezkuntza arloan prestakuntza sendoa dugu gizarte pedagogian,... prestakuntza eta irakaskuntza gaitasuna dugun profesionalak gara, ikerketa eta berrikuntzarako gaitasunak ditugu, egungo gizartearen konplexutasunari aurre egiteko hain beharrezkoak direnak” adierazi dute GHEKNk. Gainera, *“Hezkuntzako barne egitura oso ondo ezagutzen dugu eta zubi-lanbidea gara eskolaren eta haur eta nerabeen babeserako baliabideen artean”*.

GHEKNari buruz

Gizarte Hezitzaileen Elkargoen Kontseilu Nagusia espainiar Estatutuan dauden hezitzaile elkargo guztiek osatutako erakundea da, eta estatu eta nazioarte mailan haien ordezkari gisa jarduten du. Antolakuntza alderdiez gain, lanbidea legearen aurrean defendatzea da bere zergina; eta, gainera, lan proaktiboa egiten du gizarte politiketan, Gizarte Hezkuntzaren lanbidea hobetzeko xedez. Bestalde, berarekin lan egiten duten pertsona eta kolektiboak defendatzen ditu. Informazio gehiago: <https://www.consejoeducacionsocial.net/>

Informazio eta elkarrizketa gehiago:

Lourdes Menacho Vega / 688 85 95 19 – Gizarte Hezitzaileen Elkargoen Kontseilu Nagusiko presidentea

Aitor Alonso Calle/ 688 86 26 83 – Gizarte Hezitzaileen Euskadiko elkargoko presidentea

Komunikazioa: Sandra Del Zotto / 682 686 994